

SANTA AGEDA.

1. Zorion etxe ontako denoi
oles egitera gatoz
Aterik ate oitura zaarrak
aurten berritzeko asmoz
Ez gaude oso aberats diruz
ezta ere oiñetakoz
baiñan eztaurriz sano gabiltza
ta kanta nai degu gogoz.
2. Santa Ageda bezpera degu
Euskalerriko eguna
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna
Santa au gaur artu degu
gure bideko laguna
Aren laguntzaz bete gentzake
egun ontako jarduna
3. Bedeinkatua izan dadilla
etxe ontako jendea
pobre ta humil dabilzanentzat
badute borondatea.
Santa Martiri maitea
dago errukiz betea
Berak alkantzatuko digula
osasuna ta pakea.
4. Borrero gogor oiek diote
ilko da gaurko gauean
Leen bezin firme billatu zuten
Santa au biaramonean.
Esan zioten onean
nai dezu gure legea?
Bestela presentatuko zera
poliziaren aurrean